ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2023IPLE0001**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO OHIKO BILKURA**

2023-01-31ko UDALEKO OHIKO BILKURA

Albizturren, 2023ko urtarrilaren 31n, arratsaldeko 19:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Unai Dorronsoro Olarra
- Aingeru Galarraga Barandiaran

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Mikel Galarza Arrue

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. ALBIZTURKO APARKALEKUAK ETA EREMU PUBLIKOA ERABILTZEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEAREN HASIERAKO ONARPENA
4. UNAI DORRONSORORENDIMISIOA
5. EUDEL-EK PROPOSATUTAKO ORDAINSARIEN %2,5EKO IGOERA 2023 URTERAKO
6. ESPEDIENTEAK BERRIKUSTEKO FUNTZIONAMENDU ARAUAK
7. ESKOLAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA
8. MENDI IBILBIDEEI BURUZKO MENDI FEDERAZIOAREN TXOSTENA
9. ERAUSTI BASERRIKO BIDEA
10. UEMA-KO BAZKIDETZA
11. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2022-11-29ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2022ko 100 eta 110 bitarteko eta 2023ko 1 eta 7 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. ALBIZTURKO APARKALEKUAK ETA EREMU PUBLIKOA ERABILTZEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEAREN HASIERAKO ONARPENA

Azken aldian eremu publikoaren erabilera desegokia zuzentzeko hainbat iharduera burutu ditu Albizturko Udalak; herritarren artean bandoa zabaldu zuen ekainean, erabilera okerra egiten zuten herritarrei zuzentzeko eskatu zitzaien, …

Baina legedi orokorraz haratago, beharrezkoa ikusten da Albizturko eremu publikoaren erabilera arautuko duen ordenantza onartzea, eta Albizturko Aparkalekuak eta Eremu Publikoa Erabiltzeko Ordenantza Arautzailea prestatu du.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albizturko Aparkalekuak eta Eremu Publikoa Erabiltzeko Ordenantza Arautzaileari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean uztea 30 lanegunez, egin nahi diren iradokizunak aurkez daitezen. Jendaurreko informazio izapide hori jakitera emango da iragarkia udaletxeko iragarki taulan jarriz eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuz.

4. UNAI DORRONSORORENDIMISIOA

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Osoko bilkurak onartu du Unai Dorronsoro Olarra-ren zinegotzi izaeraren errenuntzia.

Bigarrena.- Hauteskunde Batzorde zentralari honen berri ematea.

5. EUDEL-EK PROPOSATUTAKO ORDAINSARIEN %2,5EKO IGOERA 2023 URTERAKO

Joan den 2022ko abenduaren 24ean, Estatuko 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legea argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 19. artikuluan, 2023ko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

"(…)Bi. 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ezin izango dute ehuneko 2,5eko igoera baino handiagoa izan 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokienez, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz."

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Udal langile eta funtzionarioen ordainsariak 2022ko abenduaren 31n zeuden ordinsariekiko %2,5 igotzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin.

6. ESPEDIENTEAK BERRIKUSTEKO FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Albizturko Udalak espedienteak berrikusteko eskaera asko jaso ditu azken aldian, eta horrek lan handia suposatzen dio Idazkari Kontu-hartzaileari (espedienteak topatu, txukundu, fotokopiak atera, datu pertsonalak ezabatu, orri guztiak banan bana seilatu, sinatu, …), Albizturko Udalaren funtzionamendu arrunta oztopatuz.

Ondorioz, espedienteak berrikusteko funtzionamendu arauak ezartzea adostu da, Albizturko Udalak normaltasunez funtzionatzen jarrai dezan:

- Ostegunetan emango da zerbitzua 9:00 – 10:00 artean.
- Txanda aurrez eskatu beharko da (beranduenez astelehenean).
- Eguneko txanda 1 emango da eta espediente 1 aztertzeko aukera egongo da.
- Presentziala izan behar du (ez da enkarguz kopiarik egingo).
- Espedienteak ikuskatu bitartean Idazkari Kontu-hartzailea presente egongo da.
- Datu babeserako legea dela eta ez da utziko argazkiak ateratzen.
- Kopiak ateratzeko aukera emango da: Gehienez eguneko 100 kopia eta ordenantza fiskalak jarraituz kobratu egingo da.
- Kopia horietan datu pertsonalak ezabatu egingo dira banan bana.

7. ESKOLAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA

Bizkor Guraso Elkarteak 2022-2023 ikasturterako goizeko zaintza ordaintzeko dirulaguntza eskaera egin du.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Bizkor Guraso Elkarteari 500 €-ko dirulaguntza ematea 2022-2023 ikasturterako goizeko zaintza ordaintzeko.

Bigarrena.- Bizkor Guraso Elkarteari erabakiaren berri ematea.

8. MENDI IBILBIDEEI BURUZKO MENDI FEDERAZIOAREN TXOSTENA

Gipuzkoako Mendi Federazioak Albizturko PR-Gi 81 eta SL-Gi 13 mendi ibilbideei buruzko mantenimendu txostenak egin ditu.

Konpondu beharreko arazoak aurkeztu ditu eta 8 hilabeteko epea eman dio Albizturko Udalari konpontzeko. Konpondu ezean, ibilbide hauek desagertu egingo dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren ibilbide homologatuen erregistro ofizialetik.

Belarmendik mota honetako konponketak egiteko zerbitzua eskaintzen du urritik maiatzera tarifa murriztuan, eta aurrekontua eskatzea adostu da.

9. ERAUSTI BASERRIKO BIDEA

Igaran Baserriko basoa ateratzekoan Erausti Baserriko bidea hondatu zuen Iñaki Erasok, eta basoa ateratzeko baimena eskatzerakoan jarri zuen fidantza erabiliko da bidea konpontzeko. Yosebak egingo du konponketaren aurrekontua.

10. UEMA-KO BAZKIDETZA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), bertako kide izateko eskaintza egin dio Albizturko Udalari eta eskaintzen dituen zerbitzuen eta kide izateak duen kostuaren berri ematen duen txostena aurkeztu du.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- UEMA-ko kide ez egitea, herri txiki batentzat kostu handiegia duelako.

Bigarrena.- UEMA-ri erabakiaren berri ematea.

11. GALDERA ERREGUAK

- Peoi lanpostua: Jose Ramon-ek utzi egin du Albizturko Udaleko peoi lanpostua eta plaza atera bitartean ordezkoa topatu beharra dago. Ibarra-ko Udaletik lorezainen lanpoltsa lortu dugu eta bertan agertzen diren pertsonei deitzen hasiko gara.

- Aranzadi-ren proposamena: Aranzadi-k indusketak egin nahi ditu Oria ibaiaren inguruetan, eta tartean Albizturren, kare harri asko dagoelako.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Aranzadi-k Albizturren egin behar dituen indusketetan interesatua dagoela Albizturko Udala.

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Bigarrena.- Aranzadi-ri 1.546,11 €-ko dirulaguntza ematea indusketa lan hauek burutzeko.

Hirugarrena.- Aranzadi-ri erabakiaren berri ematea.

- <u>Kontratazio zentrala: Argindar espedientea 2023:</u> Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak, argindar horniduraren kontratazio espediente berri bat irekitzeko asmoa du eta Albizturko Udalari ere atxikitzeko gonbitea egin zaio.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Energia elektrikoaren horniduraako esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Kontratazioaren Zentralari erabakiaren berri eman eta beharrezko dokumentazioa osatzea.

Osoko bilkura, 21:10etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2023ko otsailaren 1ean

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 09:15:17 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.25 10:12:43 +02'00'